


IGARTUBEITI BASERRI MUSEOA

15 URTEURRENA
ANIBERSARIO



IGARTUBIZIA ... KATIXA DE SILVA-REN ESKUTIK

Old Port Films ekoiztetxeak “*Baskavígin Euskal baleazaleen hilketa*” dokumentalaren zati bat Igartubeiti Baserri Museoan grabatu du martxoak 16an eta 17an. Katixa de Silvak, Ekoizpen Exekutiboaren arduradunak Igartubeitin bizitako esperientzia kontatu digu.

Nola eta noiz ezagutu duzu Igartubeiti?

Igartubeiti Interneten aurkitu dugu, gaur egun ohikoa den bezala. Islandian 1615ean eraildako 31 baleazale euskaldunen inguruko gure dokumentalerako “Baskavígin” berregite historikoak filmatzeko barnealdeak bilatzen ari ginela.

Zergaitik da hain berezia Igartubeiti?

Interneten argazkiak ikusi genituenean gunek zalantzarako eskubidea zuela iruditu zitzaigun, beraz, harremanetan jartzeko eta baserria bisitatzera joateko erabakia hartu genuen. Atetik sartu bezain laister Igartubeiti toki berezia dela jakin genuen. Eta horrela izan zen. Txokotik txokora. Hiru aldiz gehiagotan baieztatu genuen toki ezin hobea zela, eta aitortu beharra dut beti liluratuta itzultzen ginela.

Ukaezina da Igartubeiti berezia dela. Beste garai batzuetara, beste bizitza batzuetara eramaten zaitu, ezagutu ez dituzun pertsonen bizitzetara baina nolabait baserrian beraien arrastoa utzi duten pertsonen bizitzetara. Euskal Herriaren Historia arnastea da, utzi

hegan egiten zure irudimenari, zergaitik ez, Islandia berberaraino.



Zergaitik aukeratu duzue Igartubeiti dokumentalaren grabaketako zati batzuetarako?

Igartubeiti aukeratu genuen islandiar bost etxolen barrualdea irudikatu genezakeelako kokapen bakarrean, filmaketa asko erraztuz. Horrez gain, ondoan, interpretazio zentroa izateak, aktoreak janzteko, catering-a ipintzeko aukera eskaintzen duen gunek zabala izateak, laburbilduz, filmatzen ez den bitartean egoteko toki eroso bat izateak asko eragin zuen. Azkenik, baina ez garrantzia txikiagokoa, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta batez ere Igartubeitiko langileek lana asko erraztu

digutelako eta plazera izan delako
beraiekin eskuz esku lan egitea.



Nolakoa da sentzasioa Igartubeitira sartzean?

Gure bizitzan zehar toki askotan filmatu
dugu. Orain dela gutxi Puerto de Santa
Marian eta laister Islandian. Igartubeitin
filmatzea pake eta lasaitasun
sentsasioa ematen digu. 10eko
filmaketa izango dela. Dena ongi
aterako dela etxean filmatzen dugulako.
Sentsasio honek bertan lan egiten
duten pertsonak gu tratatzeko moduan
asko eragiten du. Nabari da tokia maite
dutela eta hori igortzeaz gain,
segurtasun handia ematen digute.